

13. AKTA

OHIKO UDALBATZA, 2006ko urriaren 31n izandakoa.

NON: Pasaiako Hirian eta udaletxean.

NOIZ: Bi mila eta seiko urriaren bostean. Bilkura-buru Izaskun Gómez Cermeño alkatea dute, eta bertan da Joseba Belaustegi Cuesta behin-behineko idazkaria. Honako zinegotzi hauek etorri dira:

PSE-EE-tik

Lore Suárez Linazasoro andrea
José Basterra Marfil jauna
Lucía Querido Noceti andrea eta
Juan Manuel Domínguez López jauna

EAJ-tik

José Luis Goikoetxea Garmendia jauna
Juan Ignacio Lasurtegi Berridi jauna
José Manuel Anso Martínez jauna eta
Joaquín Martínez Vidal jauna

EA-tik

Miriam Cano Puy andrea
Marivi Roteta Mujika andrea eta
Aitor Larrañga Burguera jauna

PP-tik

Guillermo Sánchez-Berra Quintana jauna eta
José Luis Mtez. De Espronceda jauna

EB-tik

Jesús M^a García Garde jauna eta
Fco. Javier Pombo González jauna

Ohiko bilkura egiteko elkartu dira goian izendatu ditugunak, zehaztutako data eta tokian, aurretik bidali zaien bilera-deiari jarraiki. Ez du bere ezin etorria arrazoitu atxiki gabeko zinegotzia Juan Ramón González Medrano jaunak. Behin-behineko kontu-hartzaile Karmele Lizaso Ubera ere bertan izan da.

Bilkura-buruak ikusi du batzordekide aski badagoela Udalbatza eratzeko, eta bilkurari hasiera eman dio 9:00etan; ondoren, gai-zerrendako hurrengo puntuak aztertzeari ekin zaio.

1.- Aurreko batzarraldietako aktak 11. eta 12.ak 06-9-26 eta 06-10-5eko datakoak, irakurri eta onartzea, hurrenez hurren.

Udalbatzak goiburuan aipatzen diren aktak aztertu ditu, eta bertaratutako zinegotzien gehiengoak onartu ditu. Honakoa izan da emaitza:

- 11 zk.dun akta: onartu egin da. Aldeko BEDERATZI (9) boto eman dituzte PSE-EE (5), EB-IU (2) eta PP (2) alderdiko zinegotziak. Abstenitu egin dira ZAZPI (7), EAJ-PNV (4) eta EA (3) .
- 12 zk.dun akta: onartu egin da. Aldeko ZORTZI (8) boto eman dituzte PSE-EE (5), EB-IU (2) alderdietako zinegotziek eta Martinez de Espronceda PP (1) alderdiko zinegotziak. Abstenitu egin dira ZORTZI (8), EAJ-PNV (4), EA (3) alderdietako zinegotziak eta Guillermo Sanchez Berra Quintana PP (1) alderdiko zinegotzia.

Horrenbestez, dagokion akta-liburuan transkribatzeko akordioa hartu zen.

2.- Xedapen Ofizialak eta Alkate eta zinegotzi-ordezkarien ebazpenen berri ematea.

Udal idazkariak honako ebazpen eta egintza judizialen berri eman du:

- Alkatearen aginduz jarritako administrazioarekiko auzi errekurtsioa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Errepideetako zuzendari nagusiak emandako 2006ko urriaren 6ko ebazpenari jarria. Ebazpen hark ezetsi egin du Pasaiako Udalak kalteak konpontzeko eta ordaintzeko egindako eskaera; zehazki, saihezbidearen obretan kaltetutako udalaren ur-biltegia konpontzeko egin zena.
- Alkateak 2006ko urriaren 24an guardiako epaitegian jarritako salaketaren berri eman da. Donostian jarri zen, txandaz han egokitu zelako. Salaketan 2006ko urriaren 7ko gertaerak jaso ziren, udaletxearen atzeko atea behartuta ezezagunak sartu zirenekoak. Kalteak sortu eta pintadak egin ziren.

- EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salak, 3. Sekzioak 2006ko uztailaren 12an emandako epaia, 702/01 errekursoari dagokiona, Prozedura Arrunt bidez jarraitua; zehazki, 2001eko urtarrilaren 22an Gobernu Batzordeak hartutako akordioaren aurka egiteko eman zena. Akordio haren bidez, ezetsi egin zen Mercedes Saldias Gomez andreak aurkeztutako ondare-erantzukizuneko erreklamazioa, San Pedroko Pasaiako Herriko Plaza parean bidea gurutzatzean, kalean erorikoa izan eta ondorioz izan zituen kalteengatik egindakoa. Epaitzak aurkeztu diren errekurtsua eta ondare erantzukizuneko erreklamazioa ezetsi ditu, ebazpena zuzenbidearekin bat datorrela argudiatuta eta berretsia behar duela esanda eta hala, berretsi egin du, eragindako kostuak ezarri gabe.
- Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegiaren 2. Zk.ak 2006ko irailaren 29an emandako epaia, 473/05 Prozedura laburtuari dagokiona, Pasaiako alkatearen 2005eko abuztuaren 26ko ebazpenaren aurka emana. Ebazpen haren bidez, ezetsi egin zen 2005eko ekainaren 30eko ebazpenaren aurka jarritako birjartze-errekurtsua, zeinaren bidez izendatu zen errekurtsogilea behin-behineko funtzionario, lanaldi osorako eta urtebeterako, beste urtebeteko luzapena zuela. Epaitzak errekurtsua ezetsi du eta berretsi egin du errekurtsua jarritako akordioa, errekurtsuaren helburu dena, zuzenbidearekin bat etortzeagatik; guztia, eragindako kostuen ezarpenik gabe.
- Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegiaren 2. Zk.ak 2006ko irailaren 29an emandako epaia, 147/05 Prozedura arruntaren errekurtsuari dagokiona, M^a Concepción Martija Azkueren prozesu-ordezkaritzak bultzatua Pasaiako alkatearen 2005eko otsailaren 21eko ebazpenaren aurka; zeinaren bidez agintzen den, ebazpen hura jakinarazi eta hamabost eguneko epean San Markoseko 24. Zk.ko 2. etxebizitza hutsik uzteko, 34.03 “Molinaoko itsasederra” HIEren desjabetze-proiektuaren mendean egoteagatik. Epaitzak ezetsi egin du errekurtsua eta ebazpena ordenamendu juridikoarekin bat datorrela esanez, berretsi egin du, kostuen ezarpen berezirik gabe.
- Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegiaren 2. Zk.ak 2006ko irailaren 29an emandako epaia, 62/05 prozedura arruntari dagokiona, Jose Antonio Lopez de Parizaren prozesuko ordezkariak bultzatuta 2004ko azaroaren 4an aurkeztutako birjartze-errekurtsuaren ustezko ezespeneren aurka egindakoa. Errekurtsu hura Pasaiako Udaleko alkate andrearen 2004-9-28 datako ebazpenaren aurka jarri zen, izan ere hark ondorioz gabe utzi zuen Lopez de Pariza jaunaren eskaintza, Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hartutako konpromisoa betetzearren; hain justu ere, Aldundiak berak desjabetze-proiektuan berriro ostatu emateko aitortzen diren eskubideei erantzun ematearren. Epaitzak ezetsi egin du errekurtsua, eta ordenamendu juridikoa udal ebazpenarekin bat datorrela agertu du, errekurtsua berretsita, inolako kostu berezirik ezarri gabe.
- Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegiaren 2. Zk.ak 2006ko uztailaren 24an emandako epaia, 561/05 prozedura laburtuari dagokiona, Cesar Hernandez Hernandez jaunaren prozesuko ordezkariak bultzatuta, Udaleko Gobernu Batzarraren 2005eko abuztuaren 22ko errekurtsuaren aurka. Errekurtsu hark ezetsi egin zuen ondare erantzukizuneko erreklamazioa, 2005eko apirilaren 27an erreklamaziogileak Eskalantegi kalean baliza-zinta batekin estropezu egin eta erorikoaren ondorioz izandako kalteengatik egindakoa. Epaitzak ezetsi egin du errekurtsua eta ukatu egin du ondare erantzukizunik

dagoenik. Ebazpena zuzenbidearekin bat datorrela agertu du, inolako prozesu-kosturik ezarri gabe.

3.- Alkatearen gestioak eta Gobernu Organoen kontrola (T.E.E.O.L.ren 46.2.e) artikulua arabera).

Azken saioaz geroztik alkatetzan egin diren gestioen berri eman du alkateak. Honakoak dira:

- Tirri Tarraren kontzertua Pasai San Pedron.
- Apaizak Obeto espedizioak antolatutako afari omenaldia.
- Oarsoaldea SAREN Administrazio-kontseilua.
- Laurak Bat elkartearekin bilera, Trintxerpeko autobusa abiarazteko gaia dela-eta. Egiaztatu da bi proposamenak nahastu egin dituztela: bata da epe motzerakoa, autobus-zerbitzua abiaraztekoa; bestea, epe luzerako proiektua, Mugen batzordean aztertua eta udalerriko garraioari irtenbide emateko dena.
- Elkartasun mezuak jasotzea, 2006ko urriaren 7an udaletxearen aurka egindako erasoagatik; besteak beste, honakoak: Eudel, Batzorde Nagusiak, Errenteriako Udala, Tolosako Udala, Enrique Noain eta abar.
- Pasaiako Portuaren Agintaritzaren kontseilua. Presidenteak eraso gaitzetsi zuen eta kontseiluko kide guztiek agertu zuten euren adostasuna. Gainerakoan, portuaren izen aldaketa aztertu zen, aurrerantzean izen ofiziala “Pasaiako portua” eta “Pasaiako Portuaren Agintaritza” izan daitezzen.
- Immigrazio planaren aurkezpena.
- Bilera Itsas Gelako ordezkariekin. Gaia honakoa izan zen: Itsas Kapitaintzak ez dio “Mater” itsasontziari nabigatzeko baimena eman. Hala eta guztiz ere, arazoa konpondu omen da, baimenduko bailuke, gehienez ere, 12 lagunentzako edukiera mugaturako.
- Badia Berriren administrazio-kontseilua. Eduardo Mieira gerente berria aurkeztu zen eta azaroaren 1etik aurrera administrari berri bat hasiko zela jakinarazi zen.
- Bilera Etxebizitza eta Gizarte-gaietarako zuzendariarekin, udalerriko etxebizitza-gaiak gainbegiratzeko. Jakinarazi zitzaigun berehala egingo zela Luzuriaga lurzorua kutsaduratik ateratzeko kontratazioaren deialdia.
- Bilera Jaizkibiako alkateekin. Gipuzkoako Foru Aldundiaren proposamena aztertu zen, Pasaia kontseiluko kide hartzen duena. Hala ere, gaurko datan ez da oraindik erantzunik jaso.

Gobernu-organoen kontrolari buruzko hitzartzeen atalean ondokoak eman dituzte aditzera:

- Miriam Cano andreak honako galdera hauek egin zituen:
 - Jaizkibia: haren ustez, eldunen eta oposizioaren begiruneagatik urriaren 18an bidali behar zen alkateen akordioa; bere kasuan, ordea, kanpotik eta prentsari esker jakin du azaroaren 2an sinatuko dela Jaizkibiaren osaera, osatzen bada, behintzat.
 - Urdin Irratiari dagokionez, dokumentazioa eskatu du, izan ere hilabete lehenago eskatutakoa ez zaie helarazi.

➤ Donibaneko linea elektrikoa dela-eta, nola dagoen galdetu du eta obrak noizko bukatuko ote diren aurreikusia ote dagoen; izan ere negua eta hotzak berehala iritsiko dira.

- Idazkariak, Hirigintzako zinegotziak eta Pasai Donibaneko alkateordeak jakinarazi dute lortu dela Iberdrolarekin akordio baten hasiera, Donibaneko instalazio guztiak lurperatzeko eska ez dezaten, lurperatze-lanak mailakatuak izan daitezten eta lehen aldi honi egin diezaioten; garrantzizkoa baita Donibaneko energia elektrikoaren hornidura egoki berrezartzea.
- Guillermo Sanchez Berra jaunak gaineratu du Añarbeko Mankomunitatean kontusaila aurreikusia dagoela saneamendu-hoditeria lurperatzeko. Hortaz, komenigarria litzateke Añarbeko Mankomunitatea, udala eta Iberdrola elkarlanean aritzea eta harremanetan jartzea.
- Miriam Cano andrearen hitzartzeari jarraiki, gaineratu du kexa ugari jaso direla Blas de Lezo kale eta Antxori buruzkoak, arratoi asko agertu baitira. Galdetu du obrak hasi aurretik arratoi-garbiketarik egin ote den, obren mugimenduek ugaritu egin baitute arazoa. Gerora arratoi-garbiketarik egiteko kanpainarik aurreikusia dagoen gaineratu du.
- Alkateak baietz erantzun du; kanpaina aldian-aldian egiten dela eta Antxon kalea ireki aurretik egin zela, aurreko Molinaoko itsasadarreko eraisketen eskarmentuaren ondorioz ikasi baitzen hori. Hala eta guztiz ere, alkateak zehaztu du arazoa ez dela Blas de Lezokoa bakarrik, Antxo osoarena dela, eta arratoiak ez ezik labezomorroak ere badirela. Kanpaina orain bortitzagoa omen da; Oiarso enpresa 12-15 eguneko maiztasunez ari da lanean.
- Donibaneko mendi-hegalak direla-eta, Miriam Canok azaldu du berari oraindik ez zaiola adierazi zer egingo den mendi-hegaletan. Behin berari leporatu omen zitzaion Aurrekontuen aldaketen eta Donibaneko interesen aurka egitea. Oraindik ez omen du, ordea, Obra eta Zerbitzuetako deirik jaso eta ez omen dakite mendi-hegala noiz segurtatuko ote den, neguko euriak gertu badaude ere.

Miriam Cano andreak azaldu du bera oso lasai dagoela, jardun duen modura jardunda.

- Alkate andreak erantzun dio presazko egitekoak egin zirela eta ondoren azterlana enkargatu zela obrari ekiteko. Horri dagokion txostena ez omen daki noiz iritsi zen, irailaren bukaeran edo urriaren hasieran. Horregatik, barkamena eskatu dio Miriam Cano zinegotzi andreaki, hark alde aurretik ezagutzarik ez izanagatik. Alkate andreak gorabehera horri irtenbidea emango dio eta Obra eta Zerbitzuetako nagusiari esango dio zinegotziari azaltzeko obrak nola egingo diren.

Edozein modutara ere, alkate andrearen ustez, Miriam Canok abstenitu egin behar zuen bozketan eta gai honi buruzko beste edozein egitekotan, bizilagun ez ezik zinegotzi izateagatik.

Beste aldera, mendi-hegala ezegonkor dago, beste arrazoi batzuen artean legez kanpo dauden baratzengatik. Bide zaharra berreskuratzea litzateke irtenbideetako bat.

- Miriam Cano andreak jarraitu du eta Karmengo Amaren irakasleen etheen hustuketari buruzko galdera egin du; ez omen daki gaia nola dagoen. Alkate andreak erantzun du eta azaldu du etxebizitza horiek ez direla udalaren eskumenekoak, Eusko Jaurlaritzarenak baizik.
- Kaleko garbiketaz Miriam Canok esan du Pasaia, oro har, oso zikin dagoela; ez direla txakurren eginkariak jasotzen, ez direla estolderiak garbitzen. Alkate andreari galdetu dio kontratuaren jarraipenik egiten ote den eta kaleak ureztatu aurretik errazten ote diren. Hasiera batean antzeman omen zen, alegia, lehenengo 15 egunetan; gaur, ordea, badirudi zenbait lekutatik ez direla pasa ere egin.
- Alkate andreak erantzun du FCCk ez ezik, Zerbitzuetako inspektoreak ere egiten dituela eguneko parteak; ikusi omen da gabeziak daudela eta jakinarazi omen zaizkio FCCri. Ondorengo asteetan egingo omen du bilera enpresakoekin eta jakinaraziko omen die errazteko dagoen beharra, gutxiago ureztatzea eta zenbait egiteko zuzentzea. Aldi berean, jendaurrean tinko hartu du kontratuaren jarraipena egiteko konpromisoa.
- Jarraian Jose Luis Goikoetxea zinegotziak alkate andreari eta zinegotzi ordezkariari honako iritziak azaldu dizkie:
 - Jaizkibia: udalbatzar honetan hartutako akordioen arabera, Alkatetza ezin omen da bat etorri dokumentuak dioenarekin.
 - Urdin Irratia dela-eta, argitu du aurreko udalbatzarrean berak ez zuela espedientea eskatu, baizik eta txosten juridikorik ba ote zegoen eskaera egin zuela; txostenik baldin bada, helaraz dakiola, eta ez bada, egitea dagoela bat. Edozein modutara ere, auto judizialak ez du jasotzen ebazpenak dioena.
 - Donibaneko mendi-hegalei dagokienez, arraroa iruditzen omen zaio gaia Obra eta Zerbitzuetako Sailak eramatea.
- Alkate andreak azken galdera horri erantzun eman dio eta esan du ez dela mendi-hegalen gaiaz arduratu, San Juan kaleko 96 eta 102 zk.ak kaltetu zituen gertakari zehatzaz izan ezean.
- Goikoetxea jaunak jarraitu du eta Karmengo Amaren etheen hustuketaren gainean azaldu du udalari Hezkuntzak eskaera egin ziola etxebizitzak bere eskura jartzeko, inolako kargarik gabe.
- Alkate andreak erantzun du etxebizitzak Hezkuntzatik jaso ziren moduan itzuli direla, inolako aldaketarik egin gabe.

- Urriaren 7ko erasoari dagokionez, Goikoetxea jaunak azaldu du kezkatuta dagoela ez delako Pasaiako asoziazio-taldeen inolako elkartasun adierazpenik jaso, ELArena izan ezik.
- Gonzalez Medrano jaunaren gaia dela-eta, agertu du Kontu-hartzaitzetan informazioa eskatu duela eta Medrano jaunari gaurko datan 11.354€ ordánu zaizkiola. Atzeraeraginezko izaeraz 2005eko ekainaren 6an atzerapenen 4.900€ kitatu zitzaizkion eta handik aurrera hilero 400€ sartu zaizkio. Idazkariaren eta Kontu-hartzaitzeta Sailaren txostenak eskatu ditu, zergatik ordaintzen zaion agertzeko. Aldi berean, txosten horiek kontu-ikuskariari igortzeko eskaera egin du.

Azkenik, zalantza agertu du, nolatan ordaintzen ote zaion zerbait udalbatzarretara etortzen ez den zinegotzi bati.

- Udal idazkariak berretsi du horri buruzko txostena egin zuela eta zinegotzi batek, ordezkari kargua duenez, oinarrizko eskubidea duela karguan berdintasunezko baldintzetan aritzeko eta, hortaz, bere jarduketa alde batera utzita, alegia, udalbatzarretara etorri ala ez etorri, eskubidea duela bitarteko material eta ekonomikoak eskuratzeko, oinarrizko eskubidez baliatzearren.

Txostenari dagokionez, adierazi du Konstituzio Auzitegiaren doktrinan oinarritzen dela, eta oinarrizko eskubideak erabiltzeko interpretazioak hedaturazkoa behar duela izan, erabilpena eraginkorra izango bada, ekitaldi honetan banatu den txostenari jarraiki.

Idazkariak gaineratu du, Gobernu-organoei akordioaren bat hartu behar izatekotan, kontu-ikuskariak egin dezakeen txostenak ez duela txosten juridikoak adinako ahalmenik, izan ere ez da kontu-ikuskariaren eginkizuna nahitaezko aholkularitza juridikoa ematea, idazkariarena baizik.

- Guillermo Sanchez Berra jaunak alkateari eta Gobernu-organoei ondorengo gaiei buruzko iritzia eman die:
 - Jaizkibia: Pasaiako Alderdi Popularra erabat bereizi da alkate andreak udalbatzarretik kanpo hartu izan dituen akordioetatik. Bere ustez, alkate andreak ez omen du udalbatzar hartan hartutako akordioa betetzeko borondaterik; horrenbestez, udalbatzarreko akordioan aipatzen den ordezkari iraunkorra ez datza hartutako akordioan.
 - Urdin Irratia dela-eta, bat etorri da Jose Luis Goikoetxea jaunak adierazi duenarekin.
 - Kaleko garbitasunari dagokionez, azaldu du Gobernu-taldeaz gehiegi fidatu zela kontratu hori komenigarria zela defendatzeko orduan; orain ezustekoak hartzen ari da; esaterako, Cesparen eskaintza, urteko 100.000 €koa dena; hainjustu ere, FCCrena baino 800.000 € merkeagoa zortzi urteko kontratuan.
 - Talde politikoen ordenagailuak direla-eta, ez daki zeintzuk izan diren 2 edo 3 ordenagailu jartzeko arrazoiak; bat EAJ-PNV taldearentzat; beste bat EA taldearentzat eta beste bat PP taldearentzat. EB-IU eta PSE-EE taldeek uko egin diote jartzeari. Berak

ez daki zergatik zigortzen ote den bere taldea, udalean lan egiten dutenez. Alderdi Popularraren bulegoan bi lagunek egiten dute lan: zinegotziak eta taldeko administrariak. Hala ere, bi ordenagailuetatik bat bakarrik aldatu da. Ba omen daki zein izan daitekeen arrazoia.

- Gomistegiko semaforoa: Gogorazten du martxoan edo apirilean udalbatzarrean akordioa hartu zela Euskadi Etorbidearen sarreran semaforoa jartzeko. Hala eta guztiz ere, ez da ezer egin, ez eta eztabaidatu ere Hiri-mugikortasunaren Batzordean.
- Medrano jaunaren gaiaren harira azaldu du mezu ugari jaso dituela posta elektronikoz, bide beretik jarrai dezaten esateko. Hizpidera ekarri du berriro alderdiz aldatzearen akordioa, bigarren puntua irakurriz eta hirugarren puntuaren aipamena eginez, zehazki, bigarren paragrafoa, zinegotzi ez atxikiena.

Jarraian, Goikoetxea jaunak esan duenarekin %100ean bat datorrela esan du, kontu-ikuskariari txostena eskatzeko kontuan.

- Badia Berriren gaiari helduta, poztu egin da, uste baitzuen alkatetzak Badia Berri bultzatzeko borondaterik ez zuela eta Badia Berrik kudeatzen dituen gaiak Oarsoaldearen baitan aztertzearen alde zegoela.

- Alkate andreak zinegotzi ez atxikiari buruzko erantzuna eman dio eta adierazi dio animatu egiten duela Alderdi Popularra udalbatzarrean mozioa aurkeztera, eta ez bakarrik esku-hartzeak egitera Gobernu-organoen kontrolaren atalean. Gainera, alderdi aldaketaren akordioari buruzko ondorengo hausnarketak egin ditu:

Lehen-lehenik nabarmentzekoa da akordioa 1998koa dela eta jarraian 1999an PPK Toki Araubideak oinarritzen dituen Legearen erreforma egin zuela. Haren bidez, zinegotzi ez diren pertsonak Gobernu Batzordeko kide izan daitezke hiri eta hiriburu handietan, eta zer esan nahi du horrek? Hortaz, zaharkitua eta distirarik gabea da aipatutako akordioak egiten duen hasierako defentsa, alegia, zinegotzia hauteskunde zerrendara estuki lotzea; izan ere zerrendan ageri ez diren lagunen parte-hartzea hedatzera dator.

Beste alde batetik, kontuan izan behar da akordioa “alderdi aldaketen jokaera zehatzen” aurka egina dela, hain zuzen ere, ez dela zinegotzi eta bere alderdiaren arteko eztabaida-egoeran ezartzekoa.

Helburu nagusia zera da: “zinegotziei zailtasunak jartzea eta gogoia kentzea euren alderdia ez den alderdira alde egiteko”. Ez da, ordea, hori gertatu Medrano jaunarekin.

Akordioak, gainera, ez du iheslaria hartzen esan ez den bezala. Zerbait definitu ezean, nekez egin daiteke ordezkari politiko baten jarduketaren aurka, izan ere oinarritzko eskubidea erabiltzen ari da eta ezin da hartatik mugatu.

Gainera, Guillermo Sanchez jaunak behin eta berriro irakurri duen bigarren puntuak ez du esaten iheslariaren botoa onar ezin daitekeenik, baizik eta ezin onar daitekeela iheslaria bera taldean eta “ezin eman dakiokela laguntzarik iheslariengandik datozen ekimenei”.

Akordio horretan ageri den atxikirik gabeko zinegotzia legez ezin da iheslari batekin alderatu; bereziki, gure kasuan, eztabaida politikorik egon ez, eta zinegotzi eta alderdi popularreko ordezkari baten arteko gorabehera pertsonalak bakarrik daudenean.

Aldi berean, akordioaren LEHENENGO konpromisoa bosgarren atalean datza; alegia, alderdiek eurek kanporatu behar dituzte iheslariak. Hortaz, galdera honakoa da, Alderdi Popularrak kanporatu egin al du Medrano jauna?

Kanporatua izan ez bada, honako ondorioak ditugu:

- a) Iheslaria ez denez, ez dute kanporatu. Horixe defendatzen du gure taldeak; ustez, Alderdi Popularrak ere hala pentsatzen du.
- b) Iheslaria dela eta Alderdi Popularrak ez duela kanporatu. Hori horrela balitz, ez al luke argibiderik eskatu beharko Guillermod alderdian? Izan ere, kanporatua ez bada, gainerako alderdiok uste dugu legez ez dela iheslaria eta ez dagoela ezer ezartzekorik.

- Segidan, Guillermo Sanchez Berra jaunak aitortu du Medrano jauna ez dela Alderdi Popularretik kanporatua izan, izan ere ez da alderdi horretakoa, zerrendetan independente gisa agertzen bada ere.
- Alkate andreak adierazi du hori esanda dena argituta dagoela, eta Alderdi Popularrekoa ez denez, ez dela iheslaria.
- Guillermo Sanchez Berra jaunak nabarmendu du mozioa aurkezteko gonbidapena egin zaiola eta bere alderdiak aztertu egingo duela mozioa aurkeztuko ote duen. Nolanahi ere, “lotsagabe bati buruz hitz egiten ari gara”, 18 hilabetetan azaldu ez dena eta udalbatzarretara etortzen ez dena.

Ez omen dago desadostasunik haien artean. Bere ustetan, eztabaida politikoak dira, hainbat gaitan gobernu-taldearen alde bozkatu duelako.

- Azkenik, Alkate andreak adierazi du EAJ-PNV eta PP alderdietako eledunek hala eskatuta, ez dagoela inolako eragozpenik Kontu-hartzaitzaren eta Idazkaritzaren txostenak kontu-ikuskariari bidaltzeko.

GIZARTE ZERBITZUAK

4.- Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren eta ONCE fundazioaren artean egindako Lankidetzaren Hitzarmenera atxikitzea. Irisgarritasun-programa.

Gizarte Zerbitzuetako Udal Batzorde informatiboak 2006ko irailaren 18an egindako proposamena aztertuta, Udalbatzak bertaratutako zinegotzi gehienek adostasunez,

ERABAKI DU



Alkate andreaki ahalmena ematea Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren eta ONCE fundazioaren artean egindako Lankidetzaz Hitzarmenera atxikitzeko, hain justu, irisgarritasun-programa bat garatzeko (irisgarritasun obrak); akordio honi erantsia doana, udaleko idazkariak behar bezalako izapideak egin ondoren.

- Aktan jasota gera dadin hona hemen bozketaren emaitza: aldeko ZAZPI (7) boto eman dituzte, PSE-EE (5) eta EB-IU (2) alderdietako zinegotziek; abstentzioa eman dute BEDERATZIK (9), EAJ-PNV (4), EA (3) eta PP (2) alderdietako zinegotziek.

HIRIGINTZA

5.- Presaz Jardun Beharreko Alde Behartsuetarako Laguntzak. 2006-2009.

Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi gehienek adostasunez, erabaki du 2006ko urriaren 19ko Hiriaren birgaitzeari buruzko irizpena akordio bihurtzea.

“Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak 2006ko irailaren 4an Agindua eman zuen, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian hilaren 14an argitaratu zena, eta bertan presaz jardun beharreko alde behartsuetarako laguntza-programa garatzen du. Eranskinean besteak beste, Pasaia jotzen dute presaz jardun beharreko alde behartsutzat, eta dirulaguntzaren onuradun izan daiteke.

Agindu honetan araututako laguntzak eskuratzeko udalek, merkatarien elkarteek eta interesa duten udalerriko enpresek "esparru-akordio" bat sinatu beharko dute. Bertan, udalerriko hiri-merkataritza berpizteko adostutako jarduerak eta alderdi bakoitzak hartutako konpromisoak jasoko dira zehazki.

Udal honek interesa du dirulaguntza horiek eskuratzeko; izan ere, merkataritza da udalerrien jarduerara garrantzitsuenetakoa, industriak azken urte hauetan atzera egin ondoren.

Horretarako jarduketa proposamen bat egin du 2006-2009 urteetan zehar egikaritzeko, eta baita ere “akordio-esparru” bat idatzi du goian aipatutako baldintzak betetzen dituen, udalerriko merkatarien elkargoarekin sinatzeko.

AKORDIOA

LEHENA.- Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak 2006ko irailaren 4ko Aginduaren bitartez onartutako diru-laguntza eskatzea, Presaz Jardun beharreko Alde Behartsuetarako laguntza-programa garatzeko, hain zuzen ere, udalak 2006ko urriaren 17an bidalitako eskaeran ezarri zen eran.



BIGARRENA.- Pasaiako Udalak honako jarduketa hauek egingo ditu, ondorengo egutegia jarraituz:

2006

- 1.- Donibaneko eta San Pedroko alde zaharreko argiak aldatu. 59671.93 euro (% 100)
- 2.- Loreak eta lorezaintzako elementuak jarri Zumalakarregi kalean. 2294.22 euro (% 100)
- 3.- Araututako aparkalekua eta kirol-eremua antolatu Eskalantegi kalean (Usozeko zelaian). 147272.22 euro (% 100)
- 4.- Zuhaitz-txorokoak berriztatu Gure Zumardian. 5156.34 euro(% 100)

2007

- 1.- Argiztapen publikoa berritu Bonanzan. 46422.85 euro (% 100)
- 2.- Argiztapen publikoa berritu Euskadi Etorbidean. 230625.83 euro (% 100)
- 3.- Amarretxeta eta Gure Zumardia arteko zatia berriz urbanizatu. 31088.74 euro (% 100)
- 4.- Argiztapen publikoa berritu Jaizkibelen. 53161.66 euro(% 100)

2008

- 1.- Argiztapen publikoa berritu Gure Zumardian. 89566.93 euro (100%)
- 2.- Gure Zumardiako haur-parkea berritu. 43399.78 euro (% 100)

2009.

- 1.- Argiztapen publikoa berritu Maiatzaren Lehena kalean. 39913.41 euro (% 100)

- Aktan jasota gera dadin hona hemen bozketaren emaitza: aldeko ZAZPI (7) boto eman dituzte, PSE-EE (5) eta EB-IU (2) alderdietako zinegotziek; aurkako boto BAT (1) eman du Guillermo Sanchez Berra PP (1) alderdiko zinegotziak; abstenitu egin dira ZORTZI (8), EAJ-PNV (4), EA (3) alderdietako zinegotziak eta Martinez Espronceda PP (1) alderdiko zinegotzia.
- Hitzartzeen atalean ondorengoek hartu dute hitza:

- Jose Luis Goikoetxea jaunak azaldu du akordioaren alde egitearren, bere taldea abstenitu egingo dela, informazio-batzordean egin zuen modura.

Bere ustez, esandako guztia dokumentuan jasota dago eta eskertzekoa da horrela egin izana. Nolanahi ere, ez da handinahikoa eta udala motz gelditu delakoan dago, handinahikoago eta ausartago izan behar zuelako.

- Miriam Cano andrearen ustez, Akordio Markoaren Azken Ebazpena beharko litzateke, laguntzak obren bideragarritasunaren arabera baldintza daitezela aipatzearren.
- Alkate andreak adierazi du eskaeran sartuta zegoela gorabehera hori.

- Akordioaren lehenengo atala aldatzea adostu da eta bukaeran parentesi bat gehitzea, dirulaguntzen onarpena jaso dadin, 2006ko urriaren 17ko udal eskaeran ezarritako modura.

- Guillermo Sanchez-Berra jaunak kontrako botoaren arrazoia argitu du. Irizpenak ez omen du proposatutako guztia jasotzen eta ez omen dago Laurak Baten konpromisorik. Bere taldearen iritziz, benetan hutsala da eta adostasunik eza agertzen ez badu ere, bere jarrera kontrakoa izango da.

- Alkate andreak adierazi du 2006ko kontusailak lehendik egindako gastuei dagozkiela.

- Zinegotzi ordezkari Lucia Querido andrearen arabera, Laurak Batek aurten egindakoa jarri du. Merkataritzari dagokionez, Dekretuan aurreikusia dago urtez urte eskatzea, lau urteko aurreikuspena egin behar duten udalek izan ezik. Datorren urtean 2007ko jarduketak aurkeztu beharko dituzte eta orduan izango da ekarpena baloratzeko aukera.

6.- Bidasoa Goia Eremuko Zatikako Planari behin betiko onarpena (Trintxerpe Goia 2.12.02 H.I.E.)

Udalbatzak, bertaratutako gehiengo zinegotzien adostasunez, erabaki du 2006ko urriaren 25eko Hirigintza eta Ingurumen Batzorde Informatiboaren irizpena akordio bihurtzea.

“2006ko irailaren 18an Pasaiako alkateak hasierako onespena eman zion Bidasoa Goia HIE, “2.12.02 Trintxerpe Goia” Sektoreko Zatikako Planari; Jose Manuel Elicegui Sarobe arkitektoak idatzi eta 2006ko maiatzaren 8ko ikus-onetsia duena.

Plana jendaurrean jarri da arauzko argitalpenen bitartez, eta Euskaltel enpresak alegazio bakarra aurkeztu du, honakoa: “*Bidasoa Goia Sektoreko Zatikako Plana aztertu ondoren, egiaztatu dugu II.7.2. planoan ageri den telekomunikazio-sareak ez duela barne hartzen gune hori Euskaltelen sareari lotzea. Telefonica España S.A.U.k Uliia Etorbidean duen erregistro-kamera bati lotzea baino ez da proposatzen; eta beraz, Euskaltelek ezingo lieke zerbitzua eskaini urbanizazio horretan bizi behar dutenei.*”

Epez kanpo, urriaren 16an bukatzen zena, Joseba Arrese-Igor Etxeburuak bide bati buruzko alegazio idatzia aurkeztu du Larrabide Azpi Sektoretik at dagoena, eta ondorioz, Zatikako Planari eragiten ez diona .

Hirigintza-planeamenduko Erregelamenduaren 45. artikularekin bat, Zatikako Planak, besteak beste, ondoko alderdiak jaso behar ditu: “g) *Hornidura-sare eta galerien trazadura eta ezaugarriak (...) eta planak aurreikusten duen beste edozein zerbitzurenak.*”

Euskal Autonomia Erkidegoko 2/2006 Legeak, lurzoru eta hirigintzari buruzkoak (ekainaren 30ekoa), Bigarren Xedapen Iragankorrean ondokoa jasotzen du planei eta hirigintza-antolamenduko planei eta bestelako tresnei dagokienez:

“2.- Antolamendu xehakatuko planak eta antolamenduko beste tresna batzuk.

(.)

Antolamendu xehatuko planez eta antolamenduko gainerako tresnez bezainbatean, lege hau indarrean jarri ostean egiten badira eta hasierako onespena ere ostean ematen bazaie baina legeari erabat egokituta ez badaude, plan eta tresna horiei buruz legeak ezarritakoari egikitu beharko ozaizkio bere osotasunean.

Prozedurari dagokionez, lege hau indarrean jartzean behin-behineko onespenez ez duten antolamendu xehatuko planak eta antolamenduko gainerako tresnak, hain zuzen, lege honetan ezarritakoari lotuta onartuko dira behin betiko.

Zatikako planak bideratzeari buruz, aldiz, 95. Artikuluak ondokoa xedatzen du:

“3.-Jendaurrean egondako epean aurkeztutako alegazioak ikusita, udalak behin-behingo edo behin betiko onartuko du plana, bidezko diren aldaketak egin ondoren. Aldaketak funtsezkoak badira, plan partzialaren testu batekin berri bat egingo da. Testu horri hasierako onespena emango zaio eta berriz ere jendaurrean jarriko da.

(.)

5.- 3.000 biztanle edo gutxiago duten udalerrien kasuan, behin-behineko onespena emateko erabakia hartu ondoren, 10 eguneko epea egongo da –erabakia hartu denetik-plana dagokion foru-aldundira bidaltzeko, behin betiko onar dezan. 3.000 biztanle gorako udalerrietan, udalaren bigarre onespena behin betiko onespena izango da.

(.)”



Toki Araubidearen Oinarrien Legeko 22.2 c) artikuluekin bat, Udalbatzari dagokio planen eta hirigintza-legerian aurreikusten diren gainerako antolamendu-tresnen udal izapideari amaiera ematea.

47.1. artikuluekin bat, gehiengo soila behar da; izan ere gehiengo absolutua antolamendu orokorreko tresnetarako bakarrik xedatzen da.

AKORDIOA

LEHENA.- Euskaltelek aurkeztutako alegazioa onartzea, hau da, II.7.2. planoan gunen hori Euskaltelen sareari lotzea jasotzen ez duelakoa. Enpresa sustatzaileak plano berria aurkeztuko du, dagokion zuzenketa egin ondoren.

BIGARRENA.- Behin betiko onartzea ekimen pribatuko H.I.E. “2.12.02 Trintxerpe Goia” Bidasoa Goia Sektorearen Zatikako Plana, Jose Manuel Elicegui Sarobe arkitektoak idatzi eta 2006ko maiatzaren 8ko ikus-onetsia duena, eta Berasategui-Arruti S.L.k aurkeztua; hori guztia Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 95. artikuluekin bat.

HIRUGARRENA.- Behin betiko onarpen honi dagozkion planoak eta gainerako dokumentuak bideratzea, Hirigintza-planeamenduko Erregelamenduaren 131.5. artikulua betez.

LAUGARRENA.- Akordio hau osotasunean argitaratzea Planaren arau-testuarekin batera Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 70.2. artikulua betez, eta jakinaraztea akordio honen aurka soilik aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daitekeela udalean, edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, EAEko JANen jurisdikzio horren salan.

BOSGARRENA.- Akordio hau eremuko jabe guztiei eta alegazioak aurkeztu dituzten interesdun guztiei jakinaraztea.

SEIGARRENA.- Berasategi-Arruti, S.L.ri eskatzea, Hirigintza-planeamenduko Erregelamenduaren 46 eta 139. artikuluekin bat, bermea jartzeko, aipatu den ehunekoan urbanizazioa egiteko, hau da, 43.287,9 eurokoa; izan ere, ekimen partikularreko urbanizazioei buruzko Zatikako Plan baten behin betiko onarpen-egintzak balioa izan dezan, berme hori jarri beharrekoa da, eta argitaratu ere egin behar da.

- Aktan jasota gera dadin hona hemen bozketaren emaitza: aldeko ZAZPI (7) boto eman dituzte, PSE-EE (5) eta EB-IU (2) alderdietako zinegotziek; aurkako boto BAT (1) eman du Guillermo Sanchez Berra PP (1) alderdiko zinegotziak; abstenitu egin dira ZORTZI (8), EAJ-PNV (4), EA (3) alderdietako zinegotziak eta Martinez de Espronceda PP (1) alderdiko zinegotzia.

- Hitzartzeen atalean ondokoak aditzera eman dituzte:
- Jose Luis Goikoetxea jaunak azaldu du Bidasoako hitzarmenak bidaltzeko konpromisoa hartua zegoela.
- Jesus Garcia Garde jaunak azaldu du prest dagoela eta posta elektronikoz bidaltzen saiatzen ari direla.
- Jose Luis Goikoetxea jaunaren ustez, Taldearen abstentzioa Trintxerpe Goiaren eztabaidak sortua da eta zuhurtziagatik egin da.
- Miriam Cano andrea bat etorri da Goikoetxea jaunak esandakoarekin.

PERTSONAL

7.- Plantilla organikoaren aldaketa. Erdi mailako teknikari plaza bat (hirigintza) sortzea.

Udalbatzak, zinegotzi gehienek adostasunez,

ERABAKI DU

2006ko uztailaren 21eko Pertsonal eta Administrazioaren irizpena ezestea.

- Aktan jasota gera dadin hona hemen bozketaren emaitza: aldeko ZAZPI (7) boto eman dituzte, PSE-EE (5) eta EB-IU (2) alderdietako zinegotziek; aurkako ZORTZI (8) boto eman dituzte EAJ-PNV (4), EA (3) alderdietako zinegotziek eta Guillermo Sanchez-Berra PP (1) alderdiko zinegotziak. Abstenitu egin da Mtez de Espronceda PP (1) alderdiko zinegotzia.
- Hitzartzeen atalari dagokionez, ondorengoek hartu dute hitza:
 - Pertsonal Saileko zinegotzi ordezkari Lore Suarez andreak azaldu du akordio honek ondorio praktikoak izango dituela, izan ere, udalbatzako guztiek ezagutzen duten modura, eginkizun horiek administratiboki betetzeko saiakerak emaitza hutsa izan du; lan-eginkizunak ugariak direnez, haustura larria gertatuko da udalaren funtzionamenduari eta herritarrei begira.

8.- Lanpostuen zerrenda aldatzeko proposamena. Udal-eraikinen mantentze-lanetako langileak (Gida-baimena).

Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi gehienen adostasunez, erabaki du 2006ko urriaren 23ko Pertsonal eta Administrazioaren udal Batzorde Informatiboaren irizpena akordio bihurtzea.

“Zerbitzuetako buruak bere txostenean adierazi duenez, gomendagarria da “udal-eraikinen mantentze-lanetako langileen” lanpostuetarako B gida-baimena izateko baldintza jartzea, lanpostu horiei dagozkien eginkizunak nahiz lanpostu horien balio anitzeko izaera direla-eta.

A K O R D I O A

Lanpostu-zerrenda aldatzea, “udal-eraikinen mantentze-lanetako langileen” lanpostuei B gida-baimena eska dakien.”

- Aktan jasota gera dadin hona hemen bozketaren emaitza: aldeko ZAZPI (7) boto eman dituzte PSE-EE (5) eta EB-IU (2) alderdietako zinegotziek; aurkako boto BAT (1) eman du Guillermo Sanchez Berra PP (1) alderdiko zinegotziak; abstenitu egin dira ZORTZI (8), EAJ-PNV (4), EA (3) alderdietako zinegotziak eta Jose Luis Martinez de Espronceda PP (1) alderdiko zinegotzia.

9.- Lanpostuei behin-behinean beste eginkizun batzuk esleitzeko edo lanpostuen ordezkapenak egiteko araudia.

Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi gehienen adostasunez,

ERABAKI DU

Ezestea, 2006ko urriaren 26ko Alkatzaren proposamena: lanpostuei behin-behinean beste eginkizun batzuk esleitzeko edo lanpostuen ordezkapenak egiteko araudia.

- Aktan jasota gera dadin hona hemen bozketaren emaitza: aldeko ZAZPI (7) boto eman dituzte, PSE-EE (5) eta EB-IU (2) alderdietako zinegotziek; aurkako ZORTZI (8) boto eman dituzte EAJ-PNV (4), EA (3) alderdietako zinegotziek eta Guillermo Sanchez-Berra PP (1) alderdiko zinegotziak; abstenitu egin da Jose Luis Mtez. De Espronceda PP (1) alderdiko zinegotzia.
- Hitzartzeen atalari dagokionez, ondorengoek hartu dute hitza:
 - Alkate andreak sarrera bat egin du bozketa egin aurretik, udalbatzako kideei gogoraraztearren espediente honetako gorabeherak.

Iraileko Pertsonal Batzordean aztertu zen eta mahai gainean gelditu zen, taldeek ekarpenak egin zitzaizkion, izan ere aurretik ez zutela denborarik izan argudiatu zuten. Horiek horrela,



iraileko udalbatzarrean gai-zerrendatik kendu zen, udalbatzarreko kideek denbora izan zezaten ekarpenak egiteko. Hala eta guztiz ere, ez da inolako ekarpenik, ez iradokizunik izan tarte horretan.

Urriko Pertsonaleko Batzordean txosten juridikoa eskatu zen, udalbatzarraren eskumena ote den aztertzeko. Txostenak udalbatzarraren eskumenzat jo du eta horregatik ekarri da udalbatzarrera.

- Gai-zerrendatik kanpo, Jose Luis Mtez. De Espronceda jaunak udalbatzaren babesa eskatu du, bere ustetan, udalbatzako kide batek difamatu egin duelako. Izan ere, kide horrek usteltzat jo du, Argentinarako bidaia eta dirua ordaindu diotelakoan. Horrekin batera, influentzia-trafikoa leporatu dio, noiz eta Alderdi Popularra salaketa-egile den udalbatzako kideak berak hautsi duen; eta berak, ordea, partiduaren ibilbidearekin bat, koherentziaz bozkatu duen. Horrenbestez, laguntza eskatu du bere izena eta ohorea berreskura ditzan.
- Idazkariak udalbatzari jakinarazi dio, aurrean duten arazoa ez datzala udaletik kanpoko hirugarren batzuek udalbatzako kide bati egindako erasoan, baizik eta zinegotzien arteko eztabaida pertsonalean. Adiskidetzea ezinezkoa izanez gero, epaitegietara jo beharko du nork bere kabuz, udalaren esku-hartzerik gabe; izan ere udalak ahalmena du eta legezkoztat jotzen du agintari eta funtzionarioen defentsa egitea, euren ohorearen aurkako eraso egin denean eta eraso hori kanpotik datorrenean. Aitzitik, udalak ez du inoren alde egingo udalbatzako kideen arteko eztabaida denean.

Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilera 09:30ean, eta nik, behin-behineko idazkariak, hori guztia idatzi eta ziurtatzen dut eta lehendakari andrearekin batera sinatzen dut.